



**ERABAKIA, KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ EZESTEN BAITA LOIOLAKO HIPIKA KIROL ELKARTEAREN PRESIDENTE xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx JAUNAK AURKEZTU DUEN ERREKURTSOA, 2016ko ABENDUAREN 5ean GIPUZKOAKO HIPIKA FEDERAKUNTZAREN HAUTESKUNDE BATZORDEAN AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEAREN AURKAKOA.**

---

**Esp.-zk.: 45/2016**

### **AURREKARIAK**

**Lehenengoa.-** 2016ko abenduaren 30ean, **xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx** jaunak, Loiolako Hipika Kirol Elkartearen presidente den aldetik, aurkeztutako errekurtsolari sarrera eman zitzaion Kirol Justiziako Euskal Batzordean; errekurtso hori 2016ko abenduaren 5ean Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren Hauteskunde Batzordean jarritako errekurtsoa ezestearen aurkako da.

**Bigarrena.-** Urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 16.4 artikuluan oinarrituta, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtso horren izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espedientea eskatu zion Gipuzkoako Hipika Federakuntzari. Era berean, alegazioak egiteko izapidea eman zion, egokitzen dituzten froga-eginbideak aurkezteko aukera emanaz.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Hipika Federakuntzak alegazio-idazkia aurkeztu zuen 2017ko otsailaren 6an.



## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsok aztertzeko eta ebazteko*».

**Bigarrena.**- Errekurtsogileak, hau da, Loiolako Hipika Kirol Elkartearen presidente **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren 2016ko abenduaren 22ko Ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen; Ebazpen horren bitartez, 2016ko abenduaren 5ean jarritako errekurtsoa ezetsi zen.

Errekurtso-idazkian, honako hauek osotasunean baiesteko eskatzen du:

1.- Hauteskundeei buruzko informazio guztia argitaratzea, bai eta behin-behineko errolda ere, Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren web-orrian, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren – euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituena– 37. artikuluan eta Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren Hauteskunde Erregelamenduaren 30. artikuluan agintzen denari jarraikiz.



2.- Behin-behineko hauteskunde-errola osoa aurkaratutzat hartzea; izan ere, erroldaren aurkako alegazioak aurkezteko epea zabalik zegoenean ezinezkoa baitzen haren berri izatea epe hori ia amaitzeko zorian egon zen arte, baina egoera hori konponduta geratuko zatekeen web-orrian argitaratzeari buruz agindutakoa bete izan balitz.

3.- Hauteskunde-prozesua hasierara atzera eramatea, federatu guztien eskubide guztiak bermatuta.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiak hauteskunde-prozesua zaintzea.

**Hirugarrena**.- Kirol-federazioari emandako entzunaldiari dagokionez, Gipuzkoako Hipika Federakuntzak honako hauetan oinarrituta hartu ditu erabakiak: aplikatu beharreko araudian, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren R/00691/2014 Ebazpenean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren CN06-029, CN08-001 eta CN14-037 txosten juridikoetan eta Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundietako Kirol Zerbitzuetako txostenetan.

Horiek guztiak aintzat hartuta, Gipuzkoako Hipika Federakuntzak honako hau erabaki zuen:

- Web-orrian soilik klubien errola argitaratzea, datu pertsonalik ez zuelako.
- Kirolarien, epaileen eta teknikarien estamentuetako kideen datu pertsonalik ez argitaratzea web-orrian, irekia delako, eraginpekoek ez dutenez esanbidezko baimenik eman eta ez dagoenez salbuetsita lege-mailako arau baten bitartez.



- Federatuen esku egoten diren barne-oholetan errolda osoak argitaratzea, eta horien kopiak eskaintzea federatu direla eta lizentzia indarrean dutela egiaztatzen dutenei.

**Laugarrena.**- Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 2.1 artikulua arabera, <<Lege organiko hau aplikatuko zaie euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta sektore publiko zein pribatuak datu horien gainean gerogarrenean egin dezakeen erabilera-modalitate orori ere>>.

Lege Organiko horren 6.1 artikuluari jarraikiz, <<Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean>>.

Lege Organiko horren 10. artikulua dioenez, <<Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko eginbeharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrarekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan>>.

**Bosgarrena.**- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 17.4 artikuluan xedatzen denez, <<Bere organoak hautatzeko, kirol-federazio bakoitzak bere hauteskunde-araudi propioaren arabera egingo du hauteskunde-prozesua, Eusko Jaurlaritzak horretarako finkaturiko epearen barruan eta araei lotuta>>.



Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 119. artikulua araberara, <<Kirol federazioetako hauteskunde erregimena Dekretu honetan, horren garapeneko xedapenetan nahiz estatutuetan eta hauteskunde arautegietan xedatutakoaren arabera izango da>>.

Dekretu hori garatzeko, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Agindua eman zen, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituena.

Agindu horretako 22. artikulua araberara, <<Hauteskunde erroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, sexua eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan>>.

Agindu bereko 25. artikuluan xedatzen denez, <<Kirol federazio bakoitzaren hauteskunde erroldaren zabalpen egokia bermatzearen, errolda onartzen duen Hauteskunde Batzordeak iragarki-taulan jarri beharko du errolda bera; bide batez, errolda behar bezala ezagutzeko egoki diren neurri osagarri guztiak hartu beharko ditu>>.

Aipagai dugun Aginduaren 37. artikuluari jarraikiz, <<Interneten web-orri bat duten kirol federazioek bertan sartu beharko dituzte hauteskunde-erroldaren testuak, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-erregelamendua, eta interes orokorrekoak diren hauteskunde-batzordeen ebazpenak. Publizitate horrek bertan aipatzen diren pertsonen ohorea eta intimitatea errespetatu beharko ditu>>.

Aginduaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren arabera, <<1.- Betiere Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa beteko da.



2.- *Hauteskunde-eroldako datuak jendaurrean jartzeko edo lagatzeko ez da beharrezkoa izango federatuen berariazko onespena, baldin eta helburua hauetako bat bada: hauteskunde prozesuan hautesleek, berdintasunezko baldintzetan, beren eskubideak erabil ditzaketela bermatzea, edo agindu honetan federazioetako hauteskunde organoei esleitzen zaizkien eginkizun edo funtzioak gauzatzea>>.*

Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren hauteskunde-erregelamenduko 19. artikuluan xedatzen denez, <<*Hauteskunde eroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, sexua eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan>>.*

Hauteskunde-erregelamendu horretako 30. artikularen arabera, <<*Federazioak [www.federacionguipuzcoanadehipica.org](http://www.federacionguipuzcoanadehipica.org) eta [www.kirolak.net](http://www.kirolak.net) web-orrietan argitaratuko ditu hauteskunde-eroldaren testuak, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-erregelamendua, eta interes orokorrekoak diren hauteskunde-batzordeen ebazpenak. Publizitate horrek bertan aipatzen diren pertsonen ohorea eta intimitatea errespetatu beharko ditu>>.*

**Seigarrena.-** Datuak Babesteko Euskal Bulegoak –hemendik aurrera, DBEB– honako hau adierazi zuen Industriako Perituen eta Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak hautagai batek egindako eskaera onartzea ea bidezkoa den jakiteko egindako kontsultaren gaineko CN08-001 irizpenean: <<*Hauteskunde arloan indarrean dagoen lege-xedapena Hauteskundeei buruzko 5/1985 Lege Organikoa da, egin zaizkion aldaketak barne. Baina bereziki aipatu behar da, aztertzen ari garen gaiari buruzkoa izateagatik, martxoaren 10eko 1/2003 Lege organikoaren 41. artikuluko 5. idatzi-zatian ezarritakoa*

*“Kandidatura bakoitzeko ordezkariak haiei dagokien barrutiko eroldaren kopia bat jasoko dute kandidaturaren aldarrikapena egin eta hurrengo egunean. Errolda mahaiaren arabera ordenatuta egongo da, tratamendu informatikoa egin ahal izateko moduko euskarrian egongo da eta Lege honetan jasotako helburuetarako baino ezingo da erabili. Ordezkaririk ere*



*haien alderdi, federazio edo koalizioek kandidaturak aurkezten dituzten barrutietan indarrean dagoen errolda jaso ahal izango dute, eta aurreko baldintza berberekin jasoko dute. Era berean, zonako hauteskunde batzorde bakoitzak bere esparruko hauteskunde erroldaren kopia erabilgarri bana izango du”.*

*Beraz, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea araudi orokorrarentzat bidezkoa bada hautesleen datu pertsonalak, haien adostasunik gabe, kandidaturen ordezkarietara lagatzea, berdin izan behar dela bidezkoa hemen aztertzen ari garen kasuan, arazoaren muina bera delako, hau da: benetan baliatu ahal izatea antolamendu politikoaren legitimazio demokratikoaren oinarrian dagoen botoa emateko eta hautagai izateko eskubideaz...>>.*

**Zazpigarrena**- Datuak Babesteko Espainiako Agentziak –hemendik aurrera, DBEA– aztertu du antzeko kasu bat; hain zuzen ere, Madrilgo Atletismo Federazioaren aurka bere web-orrian salatzaileen datu pertsonalak, NANaren kopia eta gidatzeko baimenaren kopia biltzen zituzten hainbat dokumentu argitaratzeagatik jarritako salaketa bati dagokion R/02447/2010 Ebazpenean. Kasu horretan, datu pertsonalak agertzen diren dokumentuak txertatu zituen web-orri batean, baina datu horiek ez zituzten anonimo bihurtu. Prozedura tekniko bat da hori, eta datuak biltzeko, grabatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko aukera ematen du.

*Ebazpen horretan, DBEAk honako hau dio: <<...egiaztatu da FAM erakundeak hainbat dokumentu –lehen zehaztu ditugu– txertatu zituela hirugarrenek ere sarbidea duten bere web-orrian, eta dokumentu horietan salatzaileen datu pertsonalak agertzen dira, hala nola, izen-abizenak eta NANA, bai eta klubean betetzen dituzten karguak ere, \*\*\*HERRIAREN \*\*\*IZENA, eta*



*NANan eta gidatzeko baimenean agertzen den informazioa; agiri horien kopia ere txertatu zen web-orri horretan. Informazio hori ezin zaie hirugarrenei eman, salatzaileak esanbidez baimena ematen ez badu edo informazioa jakinaraztea ahalbidetzen duen lege-gaikuntzarik ez badago, eta kasu honetan ez dago horrelakorik.*

*Hortaz, egiaztatu da erakunde horrek Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 10. artikuluan bermatzen den sekretuaren betebeharra urratu duela, hirugarren pertsonari salatzaileen datu pertsonalak eskuratzeko aukera eman baitie>>.*

*Ebazpen horretan DBEAK dioenez, <<...salatzaileen datu pertsonalak argitaratzean, salbu eta prozesuan parte hartu dutenen eremu murrizt batean egiten den, eremu horretarako sarbide mugatua ezarrita, pertsonen intimitate-eskubidea errespetatu beharko da eta, beraz, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudian araututako printzipioak bete beharko dira.*

*Ikuspegi horretatik begiratuta, salatzaileen datu pertsonalak txertatu izanak eta [www.atletismomadrid.com](http://www.atletismomadrid.com) web-orrian sartzen diren erabiltzaileen esku jarri izanak ez ditu betetzen aipatutako printzipioak eta Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Lege Organikoa urratzen du, adierazitako norainokoarekin. Arau-urraketa hori saihesteko, FAM erakundeak izaera pertsonaleko datuak ezabatu behar zituen aldez aurretik, dokumentua anonimo bihurtzeko prozesua aplikatuta.*

*Nolanahi ere, lehen aipatu dugun Aginduak edo Madrilgo Erkidegoko Kirol Kontseilaritzak egindako errekerimenduak ezin dute justifikatu, inolaz ere, salatzaileen nortasun-agiriak edo gidatzeko baimenak FAMaren web-orrian txertatu izana>>.*

**Zortzigarrena.**- DBEAREN R/00691/2014 Ebazpena Balearretako Ehiza Federazioaren aurkako salaketa bati dagokio, bere web-orrian argitaratu zituelako erroldatutako kirolari guztien datu pertsonalak; Ebazpen horren





arabera, <<...datu pertsonalak dituen errolda bat interesdunen artean zabaltzea lortzeko, hartzaileei murriztutako sarbidea izan behar du eta, horretarako, adibidez, erabiltzailea eta pasahitza eskatzen dituen egiaztatzeko eta autentifikatzeko sistema bat erabil daiteke, sarbidea ahalbidetzeko eta, aldi berean, salatutako erakundearen erantzukizuneko datu pertsonaletara baimendu gabeko hirugarrenei sarbidea eragozteko...>>.

**Bederatzigarrena**.- DBEAren R/02751/2016 Ebazpena Gaztela eta Leongo Futbol Federazioaren aurkako salaketa bati buruzkoa da, bere web-orrian argitaratu zituelako Federazio horretako batzarreko kideak aukeratzeko hauteskundeetarako erroldak, 1.000 jokalaria baino gehiagoren datu pertsonalak –baita adingabeenak ere– entrenatzaileenak eta epaileenak ere barnean hartuta, eta datu horiek edonoren eskura daude, inolako murrizketarik gabe; Ebazpen horren arabera, <<... *Gaztela eta Leongo Futbol Federazioak erakundearen erregistratutako jokalaria, entrenatzaile eta epaileen datu pertsonalak argitaratu zituen, hau da, izen-abizenak eta probintzia, baina eraginpekoak ez zuten horretarako baimenik eman eta ez zegoen lege-gaikuntzarik argitaratutako datuak biltzen zituen errolda argitaratzeko.*

*Datu pertsonalak Federazioaren web-orrian txertatuta argitaratzeak urratu egiten du Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa, eta salatutako erakundea da horren erantzule; erakunde horri dagokio manu horretan ezartzen den sekretuaren betebeharra betetzea, datu pertsonal horiek babestearen erantzule den aldetik>>.*

**Hamargarrena**.- DBEBaren CN13-047 Ebazpena Kirol Federazio bateko kideen datu pertsonalak Interneten argitaratzeari buruzkoa da, eta federatuen datuak hauteskunde-prozesu baten barruan lagatzeko aukera ere aztertzen du;



Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko aginduaren –EAEko kirol-federazioen eta lurralde-federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen– 37. artikuluan aipatzen den hauteskunde-erroldak Interneten agertzeari buruz honako hau dio: <<Gure ustez, web-argitalpen baten aurreikuspen azpilegalak ez du esan nahi argitalpen hori modu irekian egin behar denik ezinbestean. Kasu honetan, arauak berak dio pribatutasunarekin kontuz ibili behar dela eta, beraz, Federazioaren web-atarian informazioa edonork eskura izateak urratu egingo luke, gure ustez, oinarrizko eskubide hori; eduki horretarako sarbidea mugatu egin behar zen, Federazioko kideek soilik izan zezaten eskuragai, dela erabiltzailea eta pasahitza jarrita, edo interesdunei sarbidea mugatuko dien beste edozein prozedura erabilia>>.

**Hamaikagarrena**.- Lege Organiko horren 6.1 artikuluan aipatzen denez, <<Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, ukituaren zalantzarik gabeko adostasuna beharko da, salbu eta legeak beste zerbait xedatzen duenean>> baina aurreikuspen hori makurtu egin daiteke babestutako goragoko ondasun juridiko baten aurrean, eta botoa emateko eta hautagai izateko eskubideak baliatzea halakotzat har daitezke, ordenamenduaren legitimazio demokratikoaren oinarri diren aldetik, Hauteskundearen Araubide Orokorriari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren babespean. Hori guztia Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 17.1 artikuluan xedatzen den betekizunarekin loturik dago, zeinaren arabera <<Kirol-federazioek demokrazia eta ordezkari printzipioei loturik arautuko dute beren barne-egitura eta jardura beren estatutuetan eta araudietan>>.

Horrenbestez, goragoko ondasun juridiko horren babesak ahalbidetu egiten du hauteskunde-erroldak argitaratzea, interesdunen baimenik izan gabe ere. Dena den, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren



13ko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatzen den sekretu-betebeharra dela-eta, izaera pertsonaleko datuen lagapena eraginpekoen artean soilik egin behar da. Sarbidea web-atari baten bitartez baldin bada, murrizketa hori erabiltzea eta pasahitza eskatzen dituen egiaztatzeko eta autentifikatzeko sistema baten bitartez burutu beharko da, sarbidea ahalbidetzeko eta, aldi berean, baimendu gabeko hirugarrenei sarbidea eragozteko.

**Hamabigarrena.**- Hauteskunde-eroldako datuak Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren egoitzako iragarki-taulan ere argitaratu zirela kontuan izanik, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren –euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituen– 25. artikuluan eskatzen dena betetzat jotzen da, eta errekurtsogileak ez du defentsa-gabeziarik izan.

Hala ere, gure ustez Gipuzkoako Hipika Federakuntzak egin beharreko jarduketak egin beharko lituzke hauteskunde-eroldako datuak web-orrian kontsultatzeko aukera ematearren, baina betiere erabiltzailea eta pasahitza eskatzen dituen egiaztatzeko eta autentifikatzeko sistema baten bitartez, interesdunei sarbidea ahalbidetzeko eta, aldi berean, baimendu gabeko hirugarrenei sarbidea eragozteko.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

## ERABAKI DU

**XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak, Loiolako Hipika Kirol Elkartearen presidente den aldetik, aurkeztutako errekurtsoa ezestea; errekurtso hori 2016ko abenduaren 5ean Gipuzkoako Hipika Federakuntzaren Hauteskunde Batzordean jarritako errekurtsoa ezestearen aurkakoa da.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogilearen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 16a.

**JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**  
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea